**2011ko OTSAILAREN 17ko UDALBATZARRA**
PLENO DE 17 DE FEBRERO DE 2011

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES**:**
**AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU, ALFREDO GOYENECHE DE INÉS, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, Mª SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA (6. puntuan).**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA (lana**/ trabajo)

**Tokia: BERAko Herriko Etxea.**
**Eguna: 2011-02-17**
**Ordua: 20:30**
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA.
Día: 17-02-2011
Hora: 20:30
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2011.eko urtarrilaren 20an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 20 de enero de 2011, por unanimidad SE APRUEBA

**2.- 9. POLIGONOKO S-9, SK1 eta 4. PARTZELAKO PLANEAMENDU ETA KUDEAKETAREN HIRIGINTZA HITZARMENA (S12-UE1) ONESTEA: GRUPO INMO ARANGUREN S.L.**

2.- APROBACIÓN CONVENIO URBANÍSTICO DE PLANEAMIENTO Y GESTIÓN DEL S-9, SK1 Y PARCELA 4 DEL POLÍGONO 9 (S12-UE1): GRUPO INMO ARANGUREN S.L.

***Helena Santestebanek zera aipatu du:***
***Baditu zalantza batzuk hitzarmen hauekin eta nahi du zerbait erabaki baino lehen egin bilera bat argitzeko alegazioak erantzuteko txostena egin dutenekin.***

*Helena Santesteban manifiesta que tiene varias dudas sobre estos convenios y quiere, antes de decidir, tener una reunión con los informantes de las alegaciones para su aclaración.*

***Alkateak abokatuekin bilera egiten ahal dela erran du eta denak ados agertu dira. Beraz, gai hau eta hurrengoa erabaki gabe gelditu dira.***

*El Alcalde dice que se puede hacer una reunión con los abogados ante lo que muestran su conformidad la totalidad de los y las concejalas. Por lo que este asunto y el siguiente quedan pendientes.*

**3.- 9. POLIGONOKO S-9, SK1 eta 4. PARTZELAKO PLANEAMENDU ETA KUDEAKETAREN HIRIGINTZA HITZARMENA (S12-UE2) ONESTEA: PROMOCIONES INMOBILIARIAS ZIOZ S.L. y MANDAULI S.L.**

3.- APROBACIÓN CONVENIO URBANÍSTICO DE PLANEAMIENTO Y GESTIÓN DEL S-9, SK1 Y PARCELA 4 DEL POLÍGONO 9 (S12-UE2): PROMOCIONES INMOBILIARIAS ZIOZ S.L. y MANDAULI S.L.

***Lehen aipatutakoarengatik erabaki gabe gelditu da.***

*Por lo expresado anteriormente queda pendiente.*

**4.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA, SNS2ko SEKTOREAN (GEROKO SB2), HASIERA BATEZ ONESTEA.**

4.- APROBACIÓN INICIAL DE MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL SECTOR SNS2 (FUTURO SB2) DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL.

***Idazkariak zera jakinarazi die:***
***Arratsalde honetan arkitektoen posta elektronikoa hartu du non espediente honetan dagoen dokumentazioan "Ekonomia eta Finantzako Azterketa" eta "Ingurumeneko Eraginaren Ebaluazioa" falta direla konturatu direla dioten.***

*La Secretaria comunica que esta tarde ha recibido un correo electrónico de los arquitectos donde manifiestan que se han dado cuenta que en la documentación de este expediente falta el "Estudio económico-finaiciero" y la "Evaluación de Impacto Ambiental".*

***Hori dela eta, gai hau erabaki gabe gelditu da.***

*Por lo que, este asunto queda pendiente.*

**5.- AMELTZIAGAKO HERRI LOKALA APROBETXATZEKO ERABILERA EMATEA.**

5.- CONCESIÓN DEL APROVECHAMIENTO DEL USO DE LOCAL COMUNAL DE AMELTZIAGA,.

***Aho batez, honako erabaki hartu dute:***

*Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Ameltziagako nekazaritza eta abeltzaintzako herri lokalaren erabilera emateko espedientea.**

Visto expediente para la adjudicación del aprovechamiento del local comunal agropecuario de Ameltziaga.

**Herri lurren Ordenantzaren 78. artikuluak eta horren jarraikoak jarritako prozedura egin ondoren Udalak 2010eko abuztuaren 19an eginiko bileran erabaki zuen nahiz Ameltziagako nekazaritza eta abeltzaintzako herri lokalaren erabilera emateko behin-behiniko zerrenda onestu eta ez baziren alegaziorik aurkezten behin betiko zerrenda bihurtuko zela.**

Después de realizar el procedimiento establecido en el artículo 78 y siguientes de las Ordenanzas de Comunales de Bera, en el Pleno celebrado el 19 de agosto de 2010, el Ayuntamiento acordó aprobar la lista provisional de admitidos para la concesión del aprovechamiento del local comunal agropecuario de Ameltziaga y si no hubiera alegaciones que esta lista devendría en definitiva.

**Erabaki horretan, ere, 6/1990 Foru Legearen 172. artikuluari jarraikiz Nafarroako Gobernuak onartzeko espedientea bidaltzea erabaki zuen.**

En este mismo acuerdo decidió, de acuerdo con el artículo 172 de la Ley Foral 6/1990 remitir el expediente al Gobierno de Navarra para su aprobación.

**Pasa den urtarrilaren 24ean Nafarroaren Gobernuko Herri lurren Sekzioak txostena bidali zuen non aprobetxamendua emateko behin betiko onespena Udalak egiteko ez zegoela eragozpenik**

El pasado 24 de enero la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra envió informe en el que señala que no hay inconveniente para que por parte del Ayuntamiento procede a la aprobación de la lista definitiva de la concesión del aprovechamiento.

**Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:**

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

**1) Ameltziagako nekazaritza eta abeltzaintzako herri lokalaren erabilera emateko behin-betiko zerrenda onestea:**
**1º.- ---------------------.**
**2º ----------------------.**

1) Aprobar la lista definitiva de admitidos para la concesión del aprovechamiento del local comunal agropecuario de Ameltziaga:
1º.- ---------------------.
2º.- ----------------------.

**2) Beraz, aipatu aprobetxamendua ---------- --------- ematea, espedientean dagoen baldintza pleguaren arabera (honekin batera kopia emanen zaio)**

2) En consecuencia, conceder al aprovechamiento citado a -------------------- de acuerdo con el pliego de condiciones obrante en el expediente (Se le adjuntará copia).

**3) Erabaki hau interesatuei bidaltzea.**

3) Notificar este acuerdo a los interesados.

***Jon Abril zinegotzia bertaratu da.***

*Se incorpora el concejal Jon Abril.*

**6.- 2011-2012ko IKASTURTEAN UDAL HAUR ESKOLAN SARTZEKO ARAUAK ONESTEA.**

*Aho batez, honako erabaki hartu dute:*

**Ikusirik Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendari Nagusiak emandako urtarrilaren 12ko 1/2011 Ebazpena, Funts Publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2011-2012 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura arautzen duena.**

**Ikusirik, Hezkuntzako Kontseilariak emandako urtarrilaren 20ko 6/2011 Foru Agindua, aipatutako ikasturterako tarifak ezartzen dituena.**

**Ikusirik, Nafarroako Gobernutik bidalitako izena ematea eta ikasleak sartzeko aginduak Haur Eskolan 2011-2012ko ikasturtean matrikula egiteko.**

**Kontuan hartuz, aurreko urtetan ikasleak onartzeko Hautapen Batzordea izendatu zela eta ez dago aldaketarik.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) Herrian bizitzea eta lan egiteagatik joan den urteko baremoan dagoen puntuazio bera izateko eskaera idatziz Hezkuntza Departamentuari bidaltzea.**

**2) Nafarroako Gobernua bidalitako izena ematea eta ikasleak sartzeko aginduak, Haur Eskolan 2011-2012 ikasturtean matrikula egitekoak, onestea.**

**3) Lehen aipatu den 6/2011 Foru Aginduaren eranskinaren 5. oinarriari jarraikiz 50 euroko matrikulazio kuota ezartzea.**

6.- APROBACIÓN NORMAS ADMISIÓN EN LA ESCUELA INFANTIL CURSO 2011-2012.

*Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

Vista Resolución 1/2011, de 12 de enero, de la Directora General de Ordenación, Calidad e Innovación, por la que se regula el procedimiento de admisión de niños y niñas para el curso 2011/2012 en centros de primer ciclo de Educación infantil sostenidos con fondos públicos.

Vista Orden Foral 6/2011, de 20 de enero, del Consejero de Educación, por la que se establecen las tarifas de las familias para el citado curso.

Vistas instrucciones para inscripción y admisión de alumnos para la matriculación en el curso 2011-2012 en la Escuela Infantil remitidas por el Gobierno de Navarra.

Teniendo en cuenta que la Comisión de Selección del alumnado ya fue nombrada en años anteriores y no hay variación en la misma.

SE ACUERDA:

1) Solicitar al Departamento de Educación informe favorable para mantener la misma puntuación del baremo del año pasado por residencia y trabajo en el municipio.

2) Aprobar las instrucciones sobre inscripción y admisión de alumnos/as para el curso 2011-2012 en el Centro de Educación Infantil remitido por el Gobierno de Navarra.

3) Establecer una cuota de matriculación de 50 euros de acuerdo con lo establecido en el base 5ª del anexo de la Orden Foral 6/2011, antes citada.

**7.- BERAKO LIBURUTEGIKO LANPOS-**

7.- NOMBRAMIENTO DE ABOGADOS Y

**TUA BETETZEKO DEIALDIAREN AURREKAKO KASUAN ORDEZKATU ETA DEFENDATZEKO ABOKATUAK ETA PROKURADOREAK IZENDATZEA.**

*Aho batez, honako erabaki hau hartu dute.*

**Berako liburutegiko arduradun lanpostua betetzeko deialdia dela eta, 2011ko urtarrilaren 20an udal osoko bilkuran erabakitakoaren harira.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) Lehenik eta behin Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan adierazten den errekerimendua egitea Nafarroako Gobernuari, eta errefusatua bada, dagozkion errekurtso jurisdikzionalak aurkeztea.**

**2) Kasua jarraian aipatuko diren profesionalen eskuetan jartzea Udalaren ordezkaritzan eta defentsan jardun dezaten:**

**Abokatuak : -------------------------------------- -------------Prokuradoreak :**
**Iruñea : ------------------- Madrid: ---------------------------------------------**

**3.- Aipatutako profesionalen alde aurrez egindako ahalordea nahikoa izango ez balitz eta beharrezkoa bada, Alkatea ahalmentzea Udalaren izen eta ordezkaritzan beste ahalorde orokor bat emateko aipatutako prokuradore eta abokatuen alde.**

PROCURADORAS PARA LA DEFENSA Y REPRESENTACIÖN EN EL CASO DE LA CONVOCATORIA PARA PROVISIÖN DEL PUESTO DE TRABAJO EN LA BIBLIOTECA DE BERA.

*Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

Con motivo de la convocatoria para la provisión del puesto de trabajo de la Biblioteca de Bera y, en relación con el acuerdo del Pleno de 20 de enero de 2011.

SE ACUERDA:

1) En primer lugar, realizar al Gobierno de Navarra el requerimiento establecido en el artículo 44 de la Ley 29/1988, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y, en el caso, de que lo rechazara, interponer el correspondiente recurso jurisdiccional.

2) Nombrar a los siguientes profesionales para que actúen en representación y defensa del Ayuntamiento, en su caso:

Abogados: ---------------------------------------- ---------------------------.
Procuradoras:
Pamplona: -------------------
Madrid: ---------------------------------- -------------------------------

3) Autorizar al Alcalde para otorgar a favor de los y las profesionales citadas otro poder general de representación en nombre del Ayuntamiento si fuera necesario o el otorgado anteriormente no fuera suficiente.

**8.- TORTURAREN AURKAKO MOZIOA.**

*Alkateak mozioa irakurri ondoren, aho batez, onartu dute honako testua izanik:*

8.- MOCIÓN CONTRA LA TORTURA.

*Leía la moción por el Alcalde, por unanimidad, se aprueba la moción con el siguiente texto:*

**BERA herriko UDALBATZAK, azken aldi honetan Madrilgo Entzutegi Nazionalaren aginduz atxilotuak eta inkomunikatuak izan diren herritarrak egindako tortura salaketen berri izan ondoren, zera ERABAKITZEN DU:**

1.-Madrileko Entzutegi Nazionalaren aginduz atxilotu eta inkomunikatua egondako herritarrak ezagutzera eman dituzten tratu txar eta torturen testigantzaren inguruan ikerketa sakon eta egiaztagarria abiatu dezaten eskatzen diogu alde batetik horretarako eskumena duen Auzitegiari eta beste alde batetik Nafarroako Legebiltzarrari.

2- Euskal Herriko Torturaren Aurkako Taldeak, Nazioarte mailan Giza Eskubideen alde lanean ari diren hainbat erakunderen babesarekin zehaztu duen Torturaren ezabaketaren aldeko 10 puntuetako aldarrikapenarekin bat egitea eta berauen aplikazioa eskatzea dagokien erakunde publikoei. Hauexek dira 10 puntu horiek:

1.- Inkomunikazioaren amaiera eta berau onartzen duten arauen desagerpena.
2.- Atxilotuen eskubideak murrizten dituzten arau guztien desagerpena. Zehazki Prozedura Kriminaleko Legearen 520 eta 527. artikuluen ezabaketa.
3.- Entzutegi Nazionalaren eskumenen desagerpena eta epaile naturalaren eskubidea bermatzea.
4.- Atxilotu guztiek konfiantzazko mediku baten bisita pribatua edukitzeko eskubidea, bai komisaldegian zein auzitegian.
5.- Atxiloketa aldi osoa irudi eta soinu bidez grabatua izatea, eta grabazio horiek defentsako abokatuen eskura egotea.
6.- Atxilotu guztiek beraiek izendatutako abokatu bat izateko eskubidea bermatu eta errespetatzea eta honekin elkarrizketa pribatu bat izateko eskubidea bermatzea.
7.- Egun zabalik dauden tortura kasu guztiak eta iraganean inolako ikerketarik egin gabe eta bidegabeki itxi zirenak era eraginkorrean ikertu behar dira eta horien epaiketa burutu.
8.- Tortura delitua preskribaezina bihurtu, eta bere garaien ezarri ez ziren salaketak jartzen direla bermatzea.
9.- Torturapean lortutako deklarazioetan oinarritutako epaiketak eta beraien ondorioak baliogabetzea.
10.-Torturatu guztiek beharrezkoa duten asistentzia mediku, juridiko eta psikologikoa jasotzen dutela bermatzea.

**9.- BAKE BIDEAN ATERABIDE DEMOKRATIKOEN AKORDIOA.**

*Alkateak irakurri du akordioa eta, aho batez, honako erabaki hartu dute:*

9.- ACUERDO SOBRE SOLUCIONES DEMOCRÁTICAS EN EL CAMINO HACIA LA PAZ.

*El Alcalde lee el acuerdo y, por unanimidad, lo aprueban:*

**Ikusirik, Euskal Herrian 2010ko irailean 25ean zenbat giza eta politikan aritzen diren agenteek sinatutako "BAKE DIEAN ATERABIDE DEMOKRATIKOEN AKORDIOA".**

Visto "BAKE BIDEAN ATERABIDE DEMOKRATIKOEN AKORDIOA" suscrito por diversos agentes sociales y políticos en Euskal Herria el 25 de septiembre de 2010.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) Lehen aipatutako Akordioa onartzea.**

1) Aprobar el citado acuerdo.

**10.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

10.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

**Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

**1) Bandoak: B1/2011tik B3/2011ra.**

**2) Ebazpenak: 2011ko urtarrilaren 14ko 3. ebazpenetik 2011ko otsailaren 9ko 23.era arte.**

1) Bandos: del B1/2011 al B3/2011.

2) Resoluciones: De la resolución nº 3 de 14 de enero de 2011 a la nº 23 de 9 de febrero de 2011.

**Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau tratatu dute:**

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

**11.- GOARDIA ZIBILAK BERAN DUEN GAZTERIAREKIKO JARRERA SALATZEA.**

11.- DENUNCIA DE LA ACTITUD DE LA GUARDIA CIVIL CON LA JUVENTUD EN BERA.

***Ramon Elgorriaga zinegotziak, zera aipatu du:***
***Berriro badira arazoak Goardia Zibilak eta gazteekin duen jarrerarekin.***
***Izan dira abusuak eta berriro hasi dira molestatzen gazteei. Aldiro gertatzen ari den gauza da, lehen salatu zen, baretzen dira momentuan baina, gero, berriro hasten dira.***
***Beraz, proposatu du gazteei Udal babesa adierazi, Kuartelean eta Nafarroako Delegazioan berriro gestioak egitea eta prentsau-***

*El concejal Ramón Elgorriaga comenta que, de nuevo, hay problemas con la Guardia Civil y su actitud con la gente joven.*
*Ha habido abusos y, nuevamente, han empezado a molestar a la juventud. Siempre pasa lo mismo, antes se denunció, dejaron de molestar por el momento pero, luego, empiezan otra vez.*
*Por ello, propone apoyar a los jóvenes, hacer de nuevo gestiones en el Cuartel y en la Delegación del Gobierno y denunciar los*

***rreko baten bitartez salatzea.***

*hechos en una rueda de prensa.*

***Denak ados agertu dira, beraz, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*Todos y todas muestran su conformidad, por lo que, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Goardia Zibilak Beran berriro hasi dela gazteei molestatzen eta modu txarretan tratatzen.**

Visto que la Guardia Civil, nuevamente ha empezado a molestar y a tratar con malos modos a la gente joven de Bera.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) Berako gazteei Udal babesa adieraztea.**

1) Manifestar a la juventud de Bera el apoyo del Ayuntamiento.

**2) Nahiz Berako Kuartelean nahiz Nafarroako Gobernuaren Delegazioan horrelako gertaerak izan ez dadin behar den gestioak egitea.**

2) Realizar las gestiones pertinentes en el Cuartel de Bera y en la Delegación del Gobierno en Navarra para que este tipo de hechos no se vuelvan a producir.

**3) Gertatutakoa komunikabidetan prentsaurreko baten bidez salatzea.**

3) Denunciar lo sucedido en rueda de prensa ante los medios de comunicación.

**12.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:05etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:05 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta